GERNIKA LUMO
gure sustraiak

**GERNIKA-LUMOKO UDALA**
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
**KULTURA SAILA (HPS)**

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

**GERNIKA-LUMO • 2011 URTEA • HIK - 10. Idazlan Koadernoa • LEHEN HEZKUNTZA**




**GERNIKA-LUMO**

# 10.
# Idazlan Koadernoa



## Lehen Hezkuntza

GERNIKA-LUMO
2011 urtea

**Argitaratzailea:**
- Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

**Laguntzaileak:**
- Allende Salazar Ikastetxea.
- Barrutia Eskualde Ikastetxea.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.

**Portadaren egilea:**
- Claudia Parfene (LH 5. mailako ikaslea)

**Babesleak:**
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskara Zuzendaritza)

**Maketa eta Inprimaketa:**
- Graficas Amorebieta.

**2011ko edizioa.**

# Hitzaurrea

Iñaki Gorroño Etxebarria
Hezkuntza Arloko Zinegotzia



Idoia Fernández Antia
Euskera Arloko Zinegotzia



# Aurkibidea




| IZENA | MAILA | IPUINA | Orr. |
|---|---|---|---|
| Irati Perez Urbina | L.H. 1. zikloa | *“Miren eta itsaneska”* | 5 |
| Josu Etxebarria Lauzirika | L.H. 1. zikloa | *“Sorgina eta umea”* | 7 |
| Mikel Pinedo Barandika | L.H. 1. zikloa | *“Sorgina eta txakurtxoa”* | 8 |
| Oihana Albizu Otazua | L.H. 1. zikloa | *“Gazteluko lorategia”* | 10 |
| Aitor Bilbao Landa | L.H. 1. zikloa | *“Musika magikoa”* | 12 |
| Unai Akordagoitia Gandarias | L.H. 1. zikloa | *“Hondartzara goaz”* | 14 |
| Eneko Olibares Gandarias | L.H. 1. zikloa | *“Jose arrantzalea”* | 15 |
| Aimar Duñabeitia Madariaga | L.H. 1. zikloa | *“Ostadar miragarria”* | 17 |
| Gorka Madariaga Gende | L.H. 1. zikloa | *“Basoko monjea”* | 18 |
| Maialen Madariaga Gezuraga eta Peio Treceño Méndez | L.H. 1. zikloa | *“Orka eta itsas-txakurra”* | 19 |
| Aitor Jauregi Gezuraga | L.H. 2. zikloa | *“Dinosauriodun mutila”* | 21 |
| Ainitze Sendagorta Izagirre | L.H. 2. zikloa | *“Itsaso eta izurdea”* | 23 |
| Maria Amezaga Velez | L.H. 2. zikloa | *“Oier baernetegian”* | 25 |
| Ibon Etxebarria Salterain | L.H. 2. zikloa | *“Jon eta aztia”* | 28 |
| Lierni Gregorio Zabala | L.H. 2. zikloa | *“Mirrotxan magoa”* | 30 |
| Nile Ansotegi | L.H. 2. zikloa | *“Oiloen sekretua”* | 32 |
| Ander Aranas Bermeoslo eta Gorka Gorrindo Heras | L.H. 2. zikloa | *“Makila magikoa”* | 35 |
| Iñigo Unda | L.H. 2. zikloa | *“Txori bat neguan”* | 38 |
| Aitor Oianguren Asua | L.H. 2. zikloa | *”Tronen”* | 40 |
| Maialen Altuna Lakarra | L.H. 2. zikloa | *“Gerra gaiztoa da mundu guztiarentzat”* | 42 |
| Mikel Andoni Mingo Abiña | L.H. 3. zikloa | *“Leire ausarta”* | 44 |
| Ariane Maruri Aspiazu | L.H. 3. zikloa | *“Elefante txikia”* | 47 |
| Dani Garnett Fernández | L.H. 3. zikloa | *“Lertxuntxotxuri”* | 50 |
| Izaro Ziluaga Begiristain | L.H. 3. zikloa | *“Maitasunaren balioa”* | 52 |
| Igone Legarreta Galdiz | L.H. 3. zikloa | *“Zooko izurdeak”* | 55 |
| Paul Isasi | L.H. 3. zikloa | *“Otsoa gizakiaren lagun* | 58 |
| Sare Bilbao Monasterio | L.H. 3. zikloa | *“Irudimenaren erreinua”* | 61 |
| Irati Otazua | L.H. 3. zikloa | *“Neska gezurtia”* | 64 |
| Aiara Elejalde Iturbe | L.H. 3. zikloa | *“Jon eta bere itzal misteriotsua”* | 67 |
| Izaskun Izagirre Urizar | L.H. 3. zikloa | *“Oparirik baliotsuenak…”* | 70 |



Irati Perez Urbina

"Lagunekin igerilekura joatea dut gogoko, baina gehien gehien… ipuinak idaztea"

# "Miren eta itsaneska"

## Miren eta itsasneska

Bazen behin neskato bat Miren deitzen zena. Itsas-ertzeko herri txikitxo batean bizi zen.

Miren egunero itsasora joaten zen igeri egitera. Egun batean, ura begiratzen zegoela, itsasneska bat agertu zitzaion.

Arratsalde guztietan biak elkarrekin jolasten zirenez lagun minak egin ziren.

Itsasneska, herri horretako biztanleak oso pobreak zirela konturatu zenean, itsasontzi pirata baten zegoen altxorra Mireni oparitu zion.

Horrela, Mirenek, bere senideek eta lagunek ura, janaria, jantziak eta behar zituzten gauza guztiak eduki zituzten.

Itsasneskak herriko jendea pozik ikusi zuenean, berriro itsasora itzuli zen. Halan eta guztiz ere urtero elkarrekin jolastera itzultzen zen.





L.H. 1.zikloa

Josu Etxebarria Lauzirika

"Ipuinak entzutea gustatzen zait"

# "Sorgina eta umea"

Izenburua: "Sorgina eta umea"

Behin batean bazen sorgin bat eta ume bat.
Sorgina gaiztoa zen eta umea bizkorra zen.
Sorginak kasilda zuen izena eta umeak
Eneko. Sorginak Eneko ikusi zuenean hartu
eta erratza gainean eraman zuen.
Kasildak sumendira bota nahi zuen. Enekok
ikaratuta sentitu zen. Baina Enekok
kasildak esandako hitz magikoak
gogoratu zituen eta esaten hasi zen.
Orduan erratza mugitu zuen nahi zuen
lekura eta ez zen sumendira jausi.



Egilea: Josu Etxebarria -1go maila-

L.H. 1.zikloa



Mikel Pinedo Barandika

"Ama eta Anerekin Belendiztik paseotxoak ematea gogoko dut"

# "Sorgina eta txakurtxoa"

## Sorgina eta txakurtxoa

Behin batean sorgin bat bizi zen mendi tontorreko etxola zahar batean.

Egun eguzkitsu hartan, sorgina paseatzera joan zen bere herriko lagun minaren etxera.

Bidean zihoala, txakur eme bat ikusi zuen bere hiru kumeekin. Sorginak, txakurra janari bila joan zen bitartean, txakurtxo bat bere poltsa barruan sartu zuen eta korrika ihes egin zuen.

Txakur emea, kume bat falta zitzaiola konturatu zenean, oso triste jarri zen.

Sorgina bestalde, bere etxolara heldu zenean, damututa zegoen, Oso txarto jokatu zuela ohartu zelako.
Lur jota, txakur emearengana hurbildu, eta bere kumetxoa itzuli zion.

Txakur emea eta beste bi kumetxoak oso pozik jarri ziren eta handik aurrera sorginaren etxolara bizitzera joan ziren.

Eta egia ala gezurra begi bien artean sudurra.



L.H. 1.zikloa

Oihana Albizu Otazua

"Lagunekin egotea asko gustatzen zait"



# "Gazteluko lorategia"

GAZTELUKO LORATEGIA

Orain dela urte asko Ajangiren gaztelu bat zegoen. Han jende asko bizi zen. Aurrean lorategi bat zegoen. Eta jendea hara joaten zen txira egitera. Egun batean landareak eta loreak batzar bat egitea pentsatu zuten. Berriro inork txirik ez egiteko euren gainean, truko batzuk egitea erabaki zuten: ipurdian kili-kili egitea, usain txarra botatzea eta pika egiteko hauts batzuk botatzea. Horrela, trukoak erabiliz lortu zuten jendea eurengana txira egitera gehiagotan ez etortzea. Harrezkero lorategiko loretxoak eta landareak asko hazi ziren eta gaztelu aurrea polit-polita gelditu zen.

Egia egia ohe azpian txerria

Oihana Albizu Otazua





L.H. 1.zikloa

## Aitor Bilbao Landa

“Munduari bira ematea gustatuko litzaidake”

# “Musika magikoa”

"Musika magikoa"

Goiz batean musika eskolan Maider, Xabier, Eneko, Amaia eta Oihatz andereñoa lanean ari ziren. Soinu batzuk entzuten ziren eta ez ziren isiltzen. Maider, Xabier, Eneko eta Amaia ikertzen hasi ziren. Xabierrek eta Enekok aurkitu zuten. Xabierrek esan zuen: Hau pianoa da!!! Laster batean etorri ziren guztiak. Kontatu pianoaren historia andereño!!! -esan zuten denek batera. Bazen behin gizon errespetsu bat Mikel deitzen zena pianoa jotzen zuen "John" izeneko mutil (ingeles) gaizto batek hil egin zuen Mikel pianoa jotzen zegoela. Eta orain Mikelen espiritua pianoa jotzen dago. Aurrerantzean Mikelen abestiak entzutera joaten dira. Amaiera





L.H. 1.zikloa

## Unai Akordagoitia Gandarias

"Gehien gustatzen zaidana futbolean aritzea da"

# "Hondartzara goaz"

Hondartzara goaz

Behin batean, bazen Peru deitzen zen mutiko alai bat. Honek, hondartzara joateko gogo handiak zituen, beraz, amari galdetu zion:

- Ama, joan gaitezke hondartzara?

- Noski baietz. Presta dezagun motxila. - erantzun zion.

Hondartzara heldu, krema eman eta arearekin jolastera joan ziren elkarrekin. Denbora aurrera egin eta uretara joan ziren. Uretan zeudelarik, Peru marmokoz inguratuirik zegoen eta hauetariko batek pika egin zion.

Amak, sorosleari deitu eta honek botika eman zion Peruri.

Azkenean, Peru sendatu ostean ama eta biok etxera joan ziren.



Unai Akordagoitia



L.H. 1.zikloa



Eneko Olibares Gandarias

"Ni handia izan nadinean futbolaria edo arraunlaria izango naiz"

# "Jose arrantzalea"

Jose arrantzalea

Bazen behin Jose izeneko arrantzale bat, bere katuarekin ibiltzen zen arrantzan. Egun batean arrantzan zegoela gizon batzuk etorri ziren eta esan zioten:

- Aizu Jose, bihar lehiaketa bat egongo da. Parte hartuko duzu? - Josek baietz erantzun zuen baina tranpa gabe.

Lehiaketa nork arrain gehiago harrapatzea zen.

Hurrengo egunean Jose eta bere katua oso pozik joan ziren itsasora.

Joseren katua oso azkarra zen eta uretara salto egin eta arrainak harrapatzen zituen. Portura heldu zenean harrapatutako arrain guztiak erakutsi zituen. Eta berak irabazi zuen lehiaketa.

Gero egunak pasa eta pasa Jose harrotuta ibiltzen zen herrian.

Egun batean gizon ezezagun batek esan zion:

- Aizu Jose, jendearen aurrean ez da harrotu behar, bestela ez duzu lagunik edukiko.

Eta horrela ikasi zuen Josek ez dela jendearen aurrean hanatu behar.

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila Kalabazan eta irten dadila Bonu-tiako plazan.

Eneko Olibares Gandarias





L.H. 1.zikloa

## Aimar Duñabeitia Madariaga

"Nire aitarekin futbolean jolastea gustatzen zait"

# "Ostadar miragarria"



OSTADAR MIRAGARRIA

Behin batean herri txiki batean erreka ondoan animaliz beteriko herri bat zegoen.

Baina arazo bat zegoen. Animaliek ez zeukaten haien benetako kolorea.

Zuriak ziren animalia guztiak. Badakizue zergatik?

Egun batean sorgin bat agertu eta sorginkeria bota zielako animaliei, haiek jolasean erratza apurtu ziotelako. Sorginak behin eta berriro esaten zien ez jolasteko bere erratzarekin. Oso nekatuta zegoen eta egun horretan zigor bezala emateko pentsatu zuen. Baina sorginak ez zekien ostadarrak lagunduko ziela bere koloreekin, lagun handiak zirelako.

Ostadarraren kolore bakoitzak kolorea eman zion behiari, laranja tigreari, gorria txantxangorriari, horia katagorriarekin marrubia atera zen eta txakurrari eman zion...

Animalia guztiek berriz zuten kolore bat izatea eta orduantxe oso oso pozik bizi ziren, gainera ostadarrarekin beti laguntza izango zuten.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila herriko plazan ostadarraren kolore distiratsua.

AMAIERA